



**EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO UZTAILAREN 3KOA, 2020-21KO IKASTURTERAKO ESLEITZEKO PROZEDURA TELEMATIKOARI BEGIRA FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO ORDEZKOGAIEK LURRALDE HISTORIKOAREN, DESTINOAREN ETA LANALDI MOTEN AUKERAK TELEMATIKOKI ALDATU AHAL IZATEKO EPEA ETA PROZEDURA EZARTZEN DITUENA**

Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako ordezkogaiak birmareazioan, urtero egiten dena, haien aukera pertsonalak eman zituzten ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudiak ezartzen duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboan jasota dagoena.

Pertsona horiei begira, informatikoki parte hartzeko sistema baten bidez eramango da aurrera 2020-21 ikasturte hasierako esleipen-prozedura.

Hau da, bitarteko informatikoen bidez esleituko dira fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako langile finko eta mugagabe ez finkoen eta lanpostu hutsak betetzen dituztenen artean esleitu gabe geratzen diren lanpostuak, baita ikasturtearen hasiera hori dela-eta hezkuntza-zerbitzua emateko behar diren gainontzeko lanpostuak ere. Hori guztia, 2019ko ekainaren 4ko Aginduari jarraiki, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen baitzaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta zeinaren bidez ezartzen baita lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Prozesu horretan, helbidea ikastetxe publikotik 50 kilometro baino gehiagoko distantzia batera dagoenean, ezin izango zaio lanaldi murrizteko lanpostu bati uko egin lehen aipatutako 2019ko ekainaren 4ko Aginduaren lehenengo xedapen gehigarriari jarraiki.

Zirkunstantzia horri erreparatuta eta bigarren xedapen gehigarriak zehaztutakoa aplikatuz, epe bat eman behar da, interesatuek eman beharreko lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukerak aldatu ahal izateko.

Epe horretan eskatzen diren aldaketak 2020-21ko ikasturtean esleitzeko prozedura telematikoan parte hartzeko baino ez dira kontuan izango. Prozesu hori bukatu ondoren, birbarematze-prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute eskatzaileek eta 2020-21ko ikasturterako ordezkogaien behin betiko zerrendan jasoko dira.



Horren arabera,

## **EBAZTEN DUT:**

### **Lehena.- Epea**

2020ko uztailaren 6ko 09:00etatik uztailaren 9ko 14:00ak arte ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendan dauden pertsonak aldatu ahal izango dituzte 2020-21 ikasturterako birbarematze-prozesuan adierazi zituzten lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukerak.

### **Bigarrena.- Eskaera aurkeztu dezaketen ordezkogaiak.**

Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnak aurkeztu ahal izango dute eskaera, eskaera aurkezteko momentuan haien lan egoera edozein izanda ere.

Aurrekoa gorabehera, 2020/09/01ean lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten pertsonak, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua dutenek, urtebeterako bitarteko kontratua dutenek eta txanda-kontratua dutenek ezin izango dute parte hartu, ordezkogaien zerrendetan egon arren.

Kategoria bat baino gehiagoko aukerak aldatu nahi badira, aukeren aldaketak egin nahi diren kategoria bakoitzerako eskaera aurkeztu behar da.

Hala ere, bakarrik lanpostu bat esleituko zaio ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte diren horiek eskaerak egiten hasteko epea hasi baino hiru egun lehenago prest moduan badaude, lan-egoera hori eskaerak aurkezteko epea baino hiru egun lehenago aldatzeko aukera izango dute dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

### **Hirugarrena.- Eskaera.**

Eskaera telematikoki aurkeztu beharko da <http://www.irakasle.eus> web orrialdean.

Eskaerak parte hartu nahi duen Lurralde Historikoa, destinoa (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukeren amaierako egoera azalduko du.

Horiek horrela, eskaera aurkezten duten pertsonak eskaera horretan adierazten dituzten lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukerekin hartuko dute prozesuan parte 2020-21 ikasturtean Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrendako birbarematzeko prozesuan adierazi dituztenak zeintzuk diren alde batera utzita.

Berritzegunea destino moduan ez dituzten lanaldi partzialeko lanpostuetan, Administrazioak fikziozko destino bat emango die zerbitzuak prestatu behar diren ikastetxearen kokapenaren arabera. Era horretan, aukeratu ahal izango da zein zonaldeetan lanaldi partzialeko lanpostu bat esleitzea nahi duten. Berritzegune bakoitzeko zonaldeak eranskinean jasotzen dira.

**Laugarrena.- Publizitatea.**

Aurreko artikuluan aipatzen den eskaera aurkezten duten pertsonak hautatutako lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukerak 2020-21ko ikasturterako esleitzeko prozedura telematikoetan eskaerak aurkezteko epea ireki aurretik emango dira argitara, Hezkuntza Sailaren web orrian (<https://www.irakasle.eus>) argitara emango den ebazpenaren bidez.

2020ko uztailaren 10ean ordezkogaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialetarako bakarrik) eta lanaldi motaren aukeren behin behineko zerrenda argitara emango da eta 2020ko uztailaren 23an behin betiko ebazpena argitara emango da.

**Bosgarrena.- Ondorioak.**

Eman beharreko lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukeretan izandako aldaketak, ebazpen honetan ezarritako epean eta eskaerarekin eskatzen badira, 2020-21ko ikasturterako esleitzeko prozedura telematikoan parte hartzeko, besterik ez dira kontuan hartuko, pertsona bakoitzak eskaeran adierazitakoaren arabera.

Prozesu hori bukatu ondoren, fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute 2020-21ko ikasturtean eskatzaileek. Aukera horiek 2020-21ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara emango duen ordezkogaien behin betiko zerrendan jasota agertuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 3an

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**JON AGIRRE HUERGA**